




Guerrilla Girls

## Artearen akuilu

URTARRILAREN 6A BITARTE egongo da zabalik, Bilboko Alondegian, Guerrilla Girls kolektiboak 1985-2013 epean egindako ekintzen erakusketa. Kartelak eta leloak biltzen ditu nagusiki. Tximino maskarak eraman ohi dituen guerrilla feministak estetika eta politika elkarri loturik joan daitezkeela erakusten du. Emakume sortzaileek osatutako taldea da, eta aurpegia estaltzen dute, euren ekintza estetikoak eraginkorrako izango direlakoan. Salatzeko modu asko dago, eta emakumeona Artean kokatzen da. Sortzaileak izanik soberan dute irudimena. Ekintza politikoak eta ekintza estetikoak bat datozela edo etorri daitezkeela erakustea dute helburu.

1985ean AEBetan sortu zen Guerrilla Girls mugimendua, New Yorkeko Moma Arte Modernoko Museoak antolatutako erakusketa batean, hain zuzen. Hango atarian tximino moztorra jantzita bildutako ehunka emakumeek salaketa garbia zuten museoari eta munduari azaltzeko: emakumeen lekua aldarrikatzea. 163 sortzaile bildu zituen nazioarteko erakusketa hartan, emakumezkoak 13 besterik ez baitziren.


Guerrilla Girls mugimenduak Artean ohikoa den egia deseroso bat erakusten du, eta bertan dabil-tzan askorentzat, hezur-haragizko amesgaiztoa dira.

Artea arterako beraz, Artearen eremura mugatzen baitira sortzaile hauek. Alondegiko erakusketa honek azken urteetan burututako ekintza eta salaketen berri ematen digu hari kronologiko bati jarraituz, 1985etik hasi eta gaur arte. Erakusketaren hasieran, bildumazaleei bidalitako gutuna ageri da: "Jakinarazi digutenez, zure bildumak, bilduma gehienek bezala, ez du emakumeek sortutako behar adina artelan. Ondotxo dakigu oso gaizki sentitzen zarela horregatik, eta berehala zuzenduko duzula egoera. Bihotz-bihotzez: Guerrilla Girls".

Guggenheimi ere egin zioten kritika: "Guggenheimen zer berri artearen zalerik zorrotzenentzat? Betiko asmoak: arrazismoa, sexismoa, klasismoa, adinaren araberako bereizkeria, eurozentrismoa, nepotismoa, elitismoa, falozentrismoa. Zorionak Guerrilla Girlsen partetik. Jantzi moztorra eta egin bat gurekin!".

New Yorkeko Whitney Museoko bienaletan honakoxeak izan ziren zifrak: 1991n, %4,4 emakume beltz, %5,9 gizon beltz, %29,4 emakume zuri, %60,3 gizon zuri. 1995ean, %5,5 emakume beltz, %11,1 gizon beltz, %27,7 emakume zuri, %55,5 gizon zuri. Datuok eta beste zenbait daude ikusgai Guerrilla Girlsen erakusketan.

Erakusketa ikustera joan nintze-nean, ikusle gutxi zegoen, baina han



ziren guztiak emakumezkoak ziren. Emakumeak, eta gehienak sortzaileak, esango nuke, sobe-ra ezaguna zaien errealtateari begira. ■

Myriam Garzia

